

PLAN OROKORRA IDAZTEKO PROZESUA

Beasaingo H.A.P.Oa idazteko prozesuak zazpi fase ditu.

1. Fasea. Informazioa eta diagnostikoa [AMAITUA]

H.A.P.Oa idazteko beharrezkoa den informazioa lortzeko helburua du, biztanleria, etxebizitza, ingurumena, ekonomia, hirigintza garapena eta ezargarrria den legeriaren arloetan.

[Fasearen dokumentazioa](#)

2. Fasea. Plangintzaren aurrerakina [AMAITUA]

Fase garrantzitsuena da. Fase honetan H.A.P.O. idaztea ahalbidetuko duten irizpideak eta helburuak zehazten dira eta hirigintza-antolamenduaren aukera eta bideragarriak diren proposamenen artean aukera bat hautatzen da.

[_pdf Beasaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakina jendaurrean jartzea \(71 KB\)](#)

3.Fasea. Aurrerakinaren jendaurreko erakustaldia [AMAITUA]

Hautatutako aukera jendaurreko erakustaldian jartzen da herritarrek nahi dituzten iradokizunak egin ditzaten.

4.Fasea. Hasierako onespina [AMAITUA]

Herritarren eta prozesuan parte-hartzen duten erakundeen ohar eta iradokizunak aztertuta, Udalak hasierako onespina emango dion H.A.P.Oaren lehenengo dokumentu osoa idazten da. Herri-administrazioei emango zaie onспенaren berri, ezagutu eta txostena egin dezaten.

5.Fasea. H.A.P.Oaren jendaurreko erakusketa [MARTXAN]

Hasierako onspina duen dokumentua jendaurreko erakustaldian jartzen da herritarrek nahi dituzten iradokizunak egin ditzaten.

6.Fasea. Behin behineko onspina

Beste fase garrantzitsu bat da. Jendaurreko erakusketan sortutako alegazioak eta oharra ebazten dira eta Foru Aldundiaren organo eskudunak idatzitako ingurumen-memoria txertatzen da H.A.P.O.an. Behin behinekoz onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera igortzen da agiria.

7.Fasea. Behin betiko onspina

Behin dokumentuak oniritzi guztiak dituela, behin betikoz onartzen da H.A.P.Oa eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.